

IKUSPEGIAK

2019^{ko} Arteei eta Kultura Industriei


buruzko Estatistikaren datuen irakurketa analitikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



IKUSPEGIAK

2019^{ko} Arteei eta Kultura Industriari

buruzko Estatistikaren datuen irakurketa analitikoa



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2022

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi
Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: [https://www.katalogoak.euskadi.eus/
cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001](https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001)

Argitaraldia: 1. otsaila 2022.

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzaile:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno
Vasco C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-
Gasteiz

Koordinazio teknikoa:

ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana:

SIADCO, S.COOP

Diseinua eta maketazioa:

Miren Unzurrunzaga Schmitz

Itzulpena: LETE Itzulpenak-traducciones, SL

ISBN: 978-84-457-3621-0

Sarrera	5
I. EAE-KO ARTE ETA INDUSTRIETAKO ZIFRAK	
1. Sektorearen dimentsioa	7
2. Titulartasuna	15
3. Lurraldea	17
II. ZEHARKAKO IRAKURKETAK	
1. Asimetriak	22
2. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria	37
3. Kultura euskaraz	40
4. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna	54
5. Berrikuntza eta nazioartekotzea	57
6. Generoa	62

Sarrera

2019ko Ikuspegiak izeneko txosten honetan, *Arteei eta Industria Kulturei buruzko Estatistikaren* zazpigarren ediziotik ateratako datuak aurkezten dira. Estatistika 2007an jarri zen martxan, 2009an disko-saltoki eta liburu-dendak eta argitalpen-sektorea txertatu ziren, eta 2017an zinema-aretoak.

Txostenaren helburua da sektore-datuen irakurketa osagarri bat eskaintzea interpretazio-asmoarekin. Interes berezia duten bi elementu dakartza: kultura-sektorearen ikuspegi orokorra eta zeharkako irakurketak. Azterketa bi atal handitan egituratu da:

Batetik, arteei eta industria-kulturei buruzko adierazle orokorrak aurkezten dira, beren sektore-dimentsioari, parte hartu duten agenteen titulartasunari eta lurralde-banaketari buruzko zifra nagusien berri emanez.

Bestetik, datuen zeharkako begiradak aurkezten dira: asimetriak sektoreetan, kultura erreproduzigarriaren eta zuzeneko kulturaren arteko bereizketa, agenteen jardura ekonomikoaren bilakaera, euskararen garrantzia kultura-jardueran, publikoarekiko mendekotasun-maila agente pribatuen artean, berrikuntza- eta nazioartekotze-maila eta emakumeen presentzia enpleguan.



I.


**EAE-KO ARTE ETA
INDUSTRIETAKO ZIFRAK**

1. Sektorearen dimentsioa

Erreferentzia-urte gisa 2019a duen *Arteei eta Kultura Industriei buruzko Estatistikaren* zazpigarren edizioan, **errola osatzeko eskatzen diren baldintzak** betetzen dituzten EAEko 701 agenterik buruzko datuak bildu dira. Ekoizpenaren, erakusketa eta emanaldien eta merkataritzaren alorretan dihardute, honako sektore hauetan:

- **Arte eszenikoen** sektorea 140 agente programatzailez eta 99 ekoizleaz osatua dago. Programatzaileen artean, aretoak (96) eta jaialdiak (44) hartzen dira aintzat. Antzerkiko (83) eta dantzako (16) konpainia profesionalak arduratzen dira ekoizpenaz.
- **Liburuaren** sektorean 119 agente biltzen dira, horietatik 82 liburu-denda eta 37 argitaletxe.
- **Musikaren** sektorean 150 agente biltzen dira; horietatik 129, zuzeneko musika programatzeaz arduratzen diren erakundeak dira, eta 21 diskoaren industrian dihardutenak. Musika-programatzaileen artean 85 agente publiko daude (orkestrak ere barne), 9 musika-banda, 19 sustatzaile pribatu eta 16 kontzertu-areto. Diskoaren industria 5 diskoetxe eta 16 disko-saltokik ordezkatzeko dute.
- **Ikusizko arteetan** 64 agente biltzen dira guztira, erakusketa-aretoetan (43), ikusizko arteen ekoizleak ere barne, eta arte-galerietan (21) banatuak.
- **Ikus-entzunezkoen sektorea** 129 agentek osatzen dute: 75 agente ekoizleak eta 54 zinema-aretoak.

1. irudia.

Agenteak, sektorearen arabera. Absolutuak. 2009-2019

2019ko edizio honetan ez dago berritasunik agenteen tipologiari dagokionez. Kontuan hartu beharreko ñabardura bakarra da musika- eta txistulari-bandak berriz ere bildu direla, 2017an profil hori ez zela erantsi aintzat hartuta.

Arte eszenikoak dira 2009az geroztik bilakaera positiboena izan duen sektorea, sektore horretan eragina duen aldaketa metodologikorik ez dela izan kontuan hartuta. 2009az geroztik sektoreak % 25,8 egin du gora.

Ikusizko arteen sektoreak, azken urteetan kaltetuena izan denak, gorakada handia izan du 2015az geroztik.


Liburuaren kasuan, argitalpen-ekoizpena mantendu da, baina liburu-denden gainbehera areagotu da. Musikaren sektoreak bi dinamika kontrajarri bizi ditu: zuzeneko musikak gora egin du alderdi publikoan, eta mantendu da sustatzaile pribatuei dagokienez. Kontsumo-aretoen egoera delikatuagoa da, agente kopuruak behera egin duelako, eta diskoaren industriad gauza bera

esan dezakegu, ediziotik ediziora pixka bat beherago kokatzen baita. Argi utzi beharra dago edizio honetan musika- eta txistulari-bandak berriz ere aintzat hartu direla (9 agente).

2. irudia.

Agenteen sarearen bilakaera, sektorearen arabera. 2009-2019.

Oinarritzko indizea 100=2009



Oharra: zinema-aretoei buruzko datuak ez dira barne hartu.

2017aren aldean, sarea handitu da sektore gehienetan, eta honako hauek nabarmentzen dira: ikusizko arteen erakusle eta ekoizleak (% 19,4), musika-programatzaile publikoak (% 10,4), arte-galeriak (% 10,5), arte eszenikoen programatzaileak (% 8,5), arte eszenikoen konpainiak (% 7,6) eta ikus-entzunezkoen ekoizleak (% 5,6).

Kontzertu-aretoen (% 20), diskoetxeen (% 16,7), disko-saltokien (% 5,9) eta liburu-denden (% 15,5) sektoreek dentsitatea galdu dute.

3. irudia.

Agenteak sektorearen eta agente motaren arabera.

Datu absolutuak eta ehunekoak. 2017-2019

Sektorea	Agente tipologia	2017		2019		Aldakuntza, 2017-2019
		Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	92	13,7	99	14,1	▲7,6
	Programatzailea	129	18,8	140	20,0	▲8,5
Liburua	Argitaletxea	36	5,4	37	5,3	▲2,8
	Liburu-denda	97	14,5	82	11,7	▼15,5
Musika	Programatzaile publikoa	77	11,5	85	12,1	▲10,4
	Sustatzaile pribatua	19	2,8	19	2,7	-
	Kontzertu-aretoa	20	3,0	16	2,3	▼20
	Bandak	-	-	9	1,3	
	Diskoetxea	6	0,9	5	0,7	▼16,7
	Disko-saltokiak	17	2,5	16	2,3	▼5,9
Ikusizko arteak	Erakuslea	36	5,4	43	6,1	▲19,4
	Arte-galeria	19	2,8	21	3,0	▲10,5
Ikus-entzu- nekoak	Ekoizlea	71	10,6	75	10,7	▲5,6
	Zinema-aretoak	54	8,1	54	7,7	-
Guztira		673	100,0	701	100,0	▲4,2

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuen barnean hartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak ikusizko arteen erakusleen datuetan, datuen konfidentzialtasun-arrazoiak tarteko.

2019ko gastu eta diru-sarreraren balantzea positiboa da eta orekatzeko joera erakutsi du 4,3 milioi euroko emaitza batekin, diru-sarrera guztien % 1 izanik.

2017. urtearen aldean, ia sektore guztietan diru-sarrerak joera positiboa izan dute, eta balantze negatiboa izan dutenetan ez da beherakada esanguratsurik nabari (gehienez % 1,6).

4. irudia.

Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente tipologiaren arabera. Milako eurotan eta ehunekotan. 2019.

Sektorea	Agente tipologia	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Guztizko diru-sarren gaineko ehunekoa
		Milako euro	Milako euro	Milako euro	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	20.545,4	19.528,6	1.016,8	4,9
	Programatzailea	41.149,8	41.809,4	-659,5	-1,6
Liburua	Argitaletxea	28.080,5	28.524,9	-444,4	-1,6
	Liburu-denda	41.465,9	40.165,6	1.300,3	3,1
Musika	Programatzaile publikoa	36.991,4	37.049,2	-57,8	-0,2
	Sustatzaile pribatua	43.453,4	43.087,0	366,4	0,8
	Kontzertu-aretoa	4.917,2	4.745,5	171,7	3,5
	Bandak	9.967,7	9.970,6	-2,9	0,0
	Diskoetxea	437,2	427,5	9,7	2,2
	Disko-saltokiak	2.390,1	2.316,2	73,9	3,1
Ikusizko arteak	Erakuslea	10.790,2	10.243,6	546,5	5,1
	Arte-galeria	3.454,0	1.805,8	1.648,2	47,7
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	177.668,3	178.896,4	-1.228,1	-0,7
	Zinema-aretoak	28.041,7	26.385,2	1.656,5	5,9
Guztira		449.352,7	444.955,6	4.397,1	1,0


Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuen barnean hartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak ikusizko arteen erakusleen datuetan, datuen konfidentzialtasun-arrazioak tarteko.

5. irudian ikus daitekeenez, sektore guztietan gehitu dira agenteak eta haien diru-sarrerak, liburuaren sektorean izan ezik. Musikan eta arte eszenikoetan diru-sarreraren hazkundea agenteen kopuruarena baino pixka bat handiagoa da; ikusizko arteetan hazkundearen proportzioa antzekoa da agenteetan eta diru-sarreretan. Nabarmentzekoa da ikus-entzunezkoen sektorearen diru-sarreraren portaera; izan ere, sektore horrek arteen eta kultura-industrien diru-sarrera guztietatik hamar eurotik 4 biltzen ditu, eta, gainera, % 15,5eko igoera izan du. Negatiboetan kokatzen da liburua, nahiz eta ehunaren jaitsierak ez duen antzeko proportziorik islatzen sektoreko diru-sarreretan.

5. irudia.

Agente kopuruaren eta diru-sarreraren aldakuntza sektoreen arabera.

Ehunekotan. 2017-2019



Enpleguari dagokionez, 2019an 3.338,6 langile izan dira guztira, eta % 13,7ko igoera nabari da 2017aren aldean (402 enplegu urtean). Ikus-entzunezkoen ekoizpena nabarmentzen da, guztizkoaren % 38,7 izanik. Sektore guztietan portaera positibo bat nabari da enplegu-sorkuntzari dagokionez liburu-dendetan -20 lanpostu inguru galdu dira- eta arte-galerietan izan ezik, azken horren kasuan, nolanahi ere, termino absolututan bi enplegu gutxiago bakarrik izanik, sektorearen tamaina dela-eta.

6. irudia.

Agenteen langileak (urteko lanaldi osoko baliokideak), sektorearen eta agente tipologiaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2017-2019

Sektorea	Agente tipologia	2017		2019		Aldakuntza, 2017-2019
		Maizt.	%	Maizt.	%	%
Arte eszenikoak	Ekoizp.	287,1	9,8	323,4	9,7	▲ 12,6
	Prog.	277,5	9,4	328,7	9,8	▲ 18,4
Liburua	Argitaletxea	173,3	5,9	178,7	5,4	▲ 3,1
	Liburu-denda	250,8	8,5	231,3	6,9	▼ 7,8
Musika	Prog. publikoa	281,6	9,6	289,9	8,7	▲ 3,0
	Sust. pribatua	92,6	3,2	113,2	3,4	▲ 22,2
	Kontzertu-aretoa	42,9	1,5	52,3	1,6	▲ 21,9
	Bandak	-	-	191,4	5,7	
	Diskoetxea	3,5	0,1	4,7	0,1	▲ 33,3
	Disko-saltokia	16,1	0,5	16,9	0,5	▲ 4,8
Ikusizko arteak	Erakuslea	61	2,1	67	2	▲ 9,8
	Arte-galeria	34,3	1,2	32,4	1	▼ 5,4
Ikus-entzunezkoak	Ekoizp.	1.218,20	41,5	1.290,80	38,7	▲ 6,0
	Zinema-aretoak	197,3	6,7	218,1	6,5	▲ 10,5
Guztira		2.936,20	100	3.338,60	100	▲ 13,7

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuen barnean hartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak ikusizko arteen erakusleen datuetan, datuen konfidentzialtasun-arrazoia tarteko.

Funtzio profesionalen araberrako banaketak erakusten duenez, haren egitura oso antzera mantentzen da ediziotik ediziora, eta funtzio teknikoei lotutako enpleguak nabarmentzen dira (% 53,4). Zuzendaritza-postuak guztien % 13,6 dira, kudeaketa eta administrazioarekin lotutakoak % 14,1, eta mantentze, garbiketa eta segurtasunarekin zerikusia dutenak % 18,9.

7. irudia.

Agenteen langileak (urteko lanaldi osoko baliokideak), sektorearen, agente tipologiaren eta kategoria profesionalen arabera.

Datu absolutuak eta ehunekoak. 2019

Sektorea	Agente tipologia	Zuzendaritza		Teknika		Kudeaketa/ Administrazioa		Beste batzuk		Guztira	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
Arte eszenikoak	Ekoizleak	100,1	30,9	66,6	20,6	63,6	19,7	93,1	28,8	323,4	100,0
	Programatzaileak	42,6	13,0	125,4	38,1	94,0	28,6	66,7	20,3	328,7	100,0
Liburua	Argitaletxea	36,1	20,2	76,9	43,0	58,3	32,6	7,4	4,1	178,7	100,0
	Liburu-denda	34,5	14,9	88,9	38,4	59,4	25,7	48,5	21,0	231,3	100,0
Musika	Prog. publikoa	16,0	5,5	122,1	42,1	38,6	13,3	113,3	39,1	289,9	100,0
	Sust. pribatua	29,8	26,3	33,9	30,0	33,9	30,0	15,5	13,7	113,2	100,0
	Kontzertu-aretoa	9,3	17,8	4,0	7,7	7,1	13,5	31,9	61,0	52,3	100,0
	Bandak	9,6	5,0	179,8	93,9	2,0	1,0	0,0	0,0	191,4	100,0
	Diskoetxea	1,4	30,2	2,4	51,0	0,7	15,4	0,2	3,3	4,7	100,0
	Disko-saltokia	4,5	26,6	6,7	39,6	2,0	11,9	3,7	22,0	16,9	100,0
Ikusizko arteak	Erakuslea	9,2	13,8	33,3	49,8	9,9	14,8	14,5	21,6	67,0	100,0
	Arte-galeria	17,2	52,9	9,3	28,6	1,7	5,2	4,3	13,3	32,4	100,0
Ikus-entzunezkoak	Ekoizp.	117,6	9,1	983,4	76,2	48,1	3,7	141,8	11,0	1.290,8	100,0
	Zinema-aretoak	26,0	11,9	49,4	22,7	52,3	24,0	90,4	41,5	218,1	100,0
Guztira		453,8	13,6	1.781,9	53,4	471,6	14,1	631,3	18,9	3.338,6	100,0

Oharra: Orkestrak musika-programatzaile publikoen datuen barnean hartu dira, eta ikusizko arteen ekoizleak ikusizko arteen erakusleen datuetan, datuen konfidentzialtasun-arrazoiak tarteko.


2. Titulartasuna

Titulartasun publikoko agentetzat jotzen dira, edonolako forma juridikoa izaki, nagusiki Administrazio Publikoen partaidetza duten erakundeak; titulartasun pribatua, berriz, enpresa-jarduera eta irabazi-asmoa duten agenteei dagokie; eta, azkenik, elkarte eta fundazioak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak dira.

Aurreko edizioetan bezala, titulartasun pribatuko agenteak dira nagusi (% 50,5 2019an). Agenteen pisu erlatiboa, titulartasunaren arabera, azterlanaren aurreko edizioaren (2017) oso antzeko parametroetan kokatu da.

8. irudia.


Agenteak titulartasunaren arabera. Ehunekotan. 2009-2019



Ekonomiaren zein enpleguaren ikuspegitik, agente pribatuen nagusitasun hori ere proportzionalki islatzen da. Edozein kasutan ere, eremu publikoak bere ekonomia- eta enplegu-gaitasuna dauka, eta hirugarren sektoreari erreparatuz gero, haren dimentsio ekonomikoa eta enplegua legokiokeena baino txikiagoak direla ohartzen gara.

9. irudia.

Diru-sarrerak, gastuak, langileak guztira, eta agenteak titulartasunaren arabera.
Ehunekotan. 2019




3. Lurraldea

Lurralde Historikoaren arabera begiradak nolabaiteko oreka erakusten du kultura-sarearen lurralde-banaketa dagokionez (agenteen % 48 Bizkaian kokatzen dira, % 40 Gipuzkoan, eta % 12 Araban), eta Bizkaian kokatutako agenteen indarra nabarmentzen da, ekonomiari (diru-sarrera guztien % 67) eta enpleguari (enplegu guztien % 63) dagokienez.

10. irudia.

Agenteen, diru-sarreraren, gastuen eta langileen banaketa ehunekotan, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2019



Hiru lurralde Historikoen kultura-dentsitatea aztertzen bada bakoitzaren herritar kopuruari loturik, Gipuzkoa nabarmentzen da (39,4), hamar puntu Bizkaia-aren (29,5) eta hamalau puntu Araba-aren (25,6) gainetik. Araban, agente programatzaile eta erakusleen dentsitate ratioa handiagoa da Bizkaian baino.

11. irudia.

Agente programatzaileen eta erakusleen, saltokien eta ekoizleen 100.000 biztanleko ratioa eta banaketa, Lurralde Historikoaren arabera.

Datu absolutuak eta ratioa/100.000 biztanle. 2019


Agente tipologia	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.
Programatzaileak eta erakusleak	15,0	49	22,4	160	13,8	157
Saltokiak	3,4	11	6,2	44	5,6	64
Ekoizleak	7,3	24	10,8	77	10,1	115
Guztira	25,6	84	39,4	281	29,5	336

Agente programatzaile eta erakusleen banaketa zehatzari erreparatzen badiogu, Bizkaia eta Gipuzkoa nagusi direla ohartzen gara. Musikako eta ikusizko arteen aretoetako agente programatzaileen erdia, gutxi gorabehera, Gipuzkoan daude (% 52,0 eta % 49,0, hurrenez hurren). Bizkaian biltzen da arte eszenikoen programatzaile kopuru handiena (% 44,0). Profil hori Araban ere nabarmentzen da (% 16,0), ehuneko txikiagoetan bada ere lurraldearen bereizgarriak direla-eta.

12. irudia.

Agente Programatzaile eta erakusleak Lurralde Historikoaren arabera.


Ehunekotan. 2019



Saltokiei dagokienez, aldeak nabari dira lurraldearen arabera. Liburu-denden erdia baino gehiago Bizkaian daude, eta arte-galerien erdia baino gehiago Gipuzkoan. Kontzertu-aretoen erdia Bizkaian daude.

13. irudia.


Merkataritza-establezimenduak eta kontzertu-aretoak Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2019



Agente ekoizleen kokapena dagokion sektorearen arabera aldatzen da: Bizkaian, arte eszenikoen eta ikus-entzunezkoen ekoizpenaren % 60 da, gutxi gorabehera; Gipuzkoan, argitaletxeen % 40 daude, eta azkenik, Araban, arte eszenikoen konpainietan eta argitaletxeetan aurkitzen ditugu ehunekorik handienak, % 15 eta % 16, hurrenez hurren.

14. irudia.

Agente ekoizleak Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2019





II.

ZEHARKAKO IRAKURKETAK

1. Asimetriak

Atal honen asmoa da sektore bakoitzean dauden asimetriak azaleratzea, agenteen diru-sarrerak kontuan hartuta. Horretarako, diru-sarrera handienak dituen taldean jartzen da arreta, sektore osoan daukan inpaktua ezagutzeko. Datu agregatuek, ikuspegi orokor bat edukitzeko beharrezkoak badira ere, sektore-bereizitasunak lausotzen dituzte. Horregatik, atal honetan, diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20ak sektore bakoitzaren osotasunean duen eragina aztertu da, 80-20 araua aplikatuz.


Lehen ondorioa da araua ia sektore guztietan betetzen dela: diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20ak 7 eurotik 9 urtera bitarte metatzen dituzte diru-sarrera guztien 10 euro bakoitzetik, kontzertu-aretoetan (% 49,5) eta liburu-dendetan (% 56,7) izan ezik.

Alabaina, diru-sarrerak agente kopuru txiki batean metatzeak ez du esan nahi haien jarduerarekin gauza bera gertatzen denik. Hala, haien jardueren bereizgarriak eta haien negozioen egitura azaleratzen dira. Logikoa denez, kultura-merkataritzaren alorrean nabaritzen da diru-sarreraren eta jardueraren kontzentrazioaren arteko korrelazio hori: diru-sarrera handiak lortzen badira, ale asko saltzen direlako da, liburuak edo diskoak izan.

Gainerako sektoreetan, jardueraren logika ekoizpenaren eta programazioaren ohiko erritmoari lotzen zaio, eta diru-sarreraren dimentsioak ez du zertan jarduera handiagoa ekarri, ekoizpenen (garestiagoak, konplexuagoak eta handiagoak) edo programazioaren (ordainsari handiagoak dauzkaten ikuskizun edo kontzertuak, nazioarteko proposamenak edo artista ospetsuen erakusketak) ezaugarriei lotzen zaien neurrian.

15. irudia.

**Agente-tipologiaren rankinga, diru-sarrera handienak dituzten agenteen
% 20aren diru-sarreraren metaketa-mailaren eta jarduera-bolumenaren* arabera.
Ehunekotan. 2019**



* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa argitaratutako tituluak; arte eszenikoak = emanaldiak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak = ekoizpenak; zinema-aretoak = film programatuak; ikusizko arteak = erakusketak).

(1) EITB gabe.

Arte eszenikoen ekoizleak


Diru-sarrera handienak dituzten agente ekoizleen % 20 diren 20 konpainiek sektoreko diru-sarrera guztien (14,3 milioi euro) % 69,4 sortzen dute, 2017an lortutakoa baino pisu txikiago bat.

Joera hori enpleguan islatzen da: talde buru horrek enpleguaren osotasunean duen garrantzia % 43,8 da, aurreko edizioan lortutakoa baino pixka bat beherago.

Ekoizpen-jarduerari dagokionez, dinamika kontrakoa da: 2019an agente talde horrek ekoiztutako eta ustiatutako ikuskizunak sektorearen guztizkoaren % 30 inguru izan dira. Aurreko edizioaren aldean gehien aldatu den adierazlea ekoiztutako ikuskizunak dira, 11 puntuko igoera batekin. Emanaldiei dagokionez, pixka bat behera egin dute 2017aren aldean.

16. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoen ekoizleen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Arte eszenikoen programatzaileak

Diru-sarreraren bolumen handiago bat biltzen duten antzokien ezaugarriak daude datu horien atzean: ekipamendu handiak dira, hiriburuetan eta udalerri nagusietan kokatuak.

Diru-sarrerari dagokionez, arte eszenikoen areto handiek antzoki guztien diru-sarreraren % 72,3 metatzen dute, enpleguaren % 56,0 eta ikusleen % 55,5, hurrenez hurren.

17. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoen areto programatzaileen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Arte eszenikoen jaialdien asimetria nabaria da, diru-sarreraren bolumen handiena metatzen duten 9 jaialdiek diru-sarrera guztien % 76,7 metatzen dute, hau da, ia 9 milioi euroko diru-sarrerak.

Enpleguan, 2017an hasitako beheranzko joera areagotu egin da: jaialdi multzo txiki horren pisua langileen % 57,8 baino ez da.

Jarduerari dagokionez, programatzen dituzten ikuskizunen pisua 10 puntu igo da 2017ko edizioaren aldean, % 41 izanik, eta 2019an programatutako emanaldien pisua, berriz, 6 puntu igo da.

18. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten arte eszenikoen jaialdien % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Liburu-dendak eta argitaletxeak

Liburu-dendetan, 2017ko edizioaren oso antzeko egoera atzeman da, adierazle guztietan. Sektoreko diru-sarrera handienak dituzten establezimenduen talde horrek diru-sarreraren % 57 inguru metatzen dute, nola diru-sarrera guztiei (% 56,7) hala liburuen salmentari soilik dagokienez (% 58,1). Aipatzekoa da, asko kate edo liburu-denda handietako parte badira ere, liburu-denda independenteak ere badaudela.

% 47,7ko pisua dute sektoreko enpleguaren osotasunean.

19. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten liburu-denden % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20a suposatzen duten argitaletxeek, sektoreko diru-sarrera guztien hamar euro bakoitzetik ia zazpi metatzen dituzte.

Enpleguari dagokionez, 2017koen antzeko parametroan kokatu dira, eta sektoreko erdiari enplegua ematen jarraitzen dute (% 52,6).

Haien ekoizpenak joera egonkor bat erakusten du nobedade gisa editatutako aleei dagokienez, nahiz eta nobedade gisa ere argitaratutako tituluaren pisua gutxi gorabehera hamar puntu jaitsi den sektoreko ekoizpen osoan (2017an % 54,1 izatetik 2019an % 43,8 izatera), eta horrek tirada handiagoak egiten dituztela ematen du aditzera.

20. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten argitaletxeen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Musika-programatzaileak

Musika-programatzaile publikoen asimetria handia da: diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20ak (orkestrak barne) diru-sarrera guztien % 83,1 eta enpleguaren % 83,1 metatzen dute.

Programatutako kontzertuei dagokienez, estatistikaren aurreko edizioetako balioetan mantentzen da horien pisua (% 45,6), eta ikusle guztien hamarretik zazpi erakartzen jarraitzen dute (% 71,1).

21. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten musika-programatzaile publikoen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Sustatzaile pribatuen artean asimetria nabariagoa da gainerako sektore guztietan baino. Diru-sarreraren bolumen handiena duten agente pribatuek, programatzaile-profil horren diru-sarrera guztien hamar eurotik 9 metatzen dute. Oso adierazgarria da, halaber, 2019ko edizio honetan gainerako adierazleetan izan duten gorakada: enpleguan duten pisua hamabi puntu igo da, programatzen duten kontzertuen kopurua nabarmen igo da, eta ikusle kopurua bikoiztu dute.

22. irudia.

Musika-sustatzaile pribatuen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan.


2017-2019



Diru-sarrera handienak dituzten aretoek pisua galdu dute edizio hone-tan, agente-profil honen diru-sarrera guztien erdian kokatzeraino (guztien % 49,5). Enpleguan zein programatzen duten kontzertuetan, musika-areto guztien % 40 dira, gutxi gorabehera. Biltzen duten publikoari dagokionez, sektoreko ikusleen erdia erakartzen du jarduerak.

23. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten kontzertu-aretoen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Disko-saltokiak

Aurreko edizioen ildo beretik, disko-saltoki nagusien pisua sektorean % 70 inguru da adierazle guztietan, enpleguan izan ezik, non pisu erlatiboa % 50,7 den.

24. irudia.

Diru sarrera handienak dituzten disko-saltokietako agenteen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Ikusizko arteen agenteak

Sektorean pisu handiena duten arte-galeriek diru-sarrerak guztien eta salmentengatik diru-sarreraren % 80 metatzen dute, gutxi gorabehera.

Aurreko edizioen ildo beretik, sustatzen duten erakusketa-denboraldiari eta enpleguari dagokien sektoreak berez dauzkan ezaugarrien eraginez, enpleguan (guztiaren % 41,7) eta egindako erakusketetan (% 18,2) duten pisuaren maila bat dator, neurri handiago batean, duten agente kopurua aintzat hartuta dagokienarekin.

25. irudia.


Diru-sarrera handienak dituzten arte-galerien % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019



Erakusketa-areto handiei dagokienez, diru-sarreraren eta enpleguaren ikuspegitik asimetria handiagoa dela nabarmendu behar da. Diru-sarreraren bolumen handiago bat duten aretoek diru-sarrera guztien % 86,7 eta enpleguaren % 69,4 batzen dute.

26. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten erakusketa-aretoen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




Ikus-entzunezkoen sektoreko agenteak

Ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen asimetria aztertzeko, EITB kanpo uztea erabaki dugu, haren tamainak datuetan eragindako efektua oztopo bat delako sektoreko gainerakoa ezaugarritzeko. Kanpoan uzte hori kontuan hartuta, diru-sarrerak handien % 20 duten agenteen taldeak diru-sarrera guztien % 72,3 metatzen du. Ekoiztetxe talde horrek sektoreko % 66,9 enplegatzen du.

Logikoa denez, ekoizpenetan ia asimetriarik ez dago, eta jardueraren pisua % 9,6 da. Aurreko edizioan nabaria zenez, ekoizpenen guztizkoan duten pisu txikiak aditzera ematen du ekoiztetxe handiek proiektu gutxi gauzatzen dituztela, baina tamaina handikoak.

27. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten ikus-entzunezkoen ekoiztetxeen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan (1). 2017-2019




(1) ETB gabe.

Zinema-aretoei dagokienez, 2019an asimetriak adierazle guztietan nabarmen igo direla ikus dezakegu: zinema-aretoen % 20ak diru-sarreraren % 86,5 eta lehiatilako diru-sarreraren % 90,3 metatzen dute; langileen % 76,2 okupatzen dute; eta ikusleen % 83,9 erakartzen. Eta hori lortzen dute areto guztietako emanaldien % 90,3 programatzen dutelako, nahiz eta areto horietan ikus daitezkeen filmak guztien % 53,4 izan. Horrek esan nahi du film horiek direla luzaroen programatzen direnak, eta, beraz, leihatiletan diru gehien uzten dutenak.

28. irudia.

Diru-sarrera handienak dituzten zinema-aretoen % 20aren pisu erlatiboa sektore-adierazleetan. 2017-2019




2. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria

Arte eszenikoei, musikari eta ikusizko arteei loturik zuzenean gozatzekoak diren adierazpenak zuzeneko kulturaren parte dira, eta beste era batekoak dira liburuaren, diskoaren eta ikus-entzunezkoen kultura-industria klasikoaren aldean, azken horiek kultura erreproduzigarria ordezkatzeko dutelarik.

Agenteen mapari dagokionez, alde esanguratsurik ez da nabari estatistikaren azken bi edizioen artean. Kultura erreproduzigarriko agenteak % 38,4 dira, eta zuzeneko kulturako agenteak, berriz, % 61,6.

29. irudia.

Arteetako eta industrietako agenteen banaketa, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren arabera. Ehunekotan. 2017-2019




Agenteen mapan zuzeneko kulturari eta kultura presentzialari dagozkienak nagusitzen badira ere, diru-sarreretan eta enpleguan duten pisua alderantziz proportzionala da. Azterlanean aztertutako kultura-sektoreek sortzen dituzten hamar euro eta enplegutik 6, gutxi gorabehera, liburuaren, diskoaren eta ikus-entzunezkoen kultura-industriei dagozkie. Azpimarratzekoa da zuzeneko kultura gora ari dela 2009az geroztik, baina oso pixkanaka nolanahi ere.

Estatistikaren azken edizio honen arabera, kultura erreproduzigarriaren diru-sarrerak 278 milioi euro izan dira, eta 171,2 milioi euro zuzeneko kulturaren kasuan.

2019an, kultura erreproduzigarriaren enplegua % 58,1 izan da, eta zuzeneko kulturarena, berriz, % 41,9 (1.940,4 enplegu eta 1.398,1 enplegu, hurrenez hurren).


30. irudia.

Diru-sarrerak zuzeneko kulturako eta kultura erreproduzigarriko agenteen arabera. Ehunekotan. 2017-2019



31. irudia.

Lanaldi osoko langile baliokideak urtean, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren agenteen arabera. Ehunekotan. 2017-2019




3. Kultura euskaraz

Ikuspegiak txosten honen azken edizioan aurkeztu zen moduan, euskarazko kulturaren datuak aztertzeko EAEko hizkuntza-errealitatea hartu behar da aintzat. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak argitaratutako azken datuen arabera, 16 urtetik gorako herritarren % 33,9 elebidunak dira, % 19,1 elebidun pasiboak, eta % 47 elebakar erdaldunak. Lurraldeen artean alde handiak nabari dira: Gipuzkoako herritarren erdia (% 50,6) elebidunak dira. Bizkaian, herritarren laurdena pasatxo elebidunak dira (% 27,6), eta Araban bostena dira (% 19,2).

32. irudia.

EAEk herritarren banaketa, euskararen ezagutzaren eta Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2016




Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Adinen arabera banaketak aditzera ematen duenez, herritar euskaldunek pisua dute 35 urtetik beherakoen artean: 16 urtetik 24 urtera bitarteko herritarren % 71,4 eta 25 urtetik 34 urtera bitarteko ia erdia elebidunak dira. 1991. urteaz geroztiko bilakaerari buruzko datuek azpimarratzen dutenez, euskararen ezagutzak gora egin du herritar gazteen artean aurrera egin duelako.

33. irudia.

Herritar elebidunen banaketa adinaren arabera. Ehunekotan. 2016



Iturria: EAEko VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa.

Hizkuntza-errealitate horrek merkatu potentzial bat sorrarazten du euskarazko kultura-eskaintzarako. Adinaren era lurraldearen aldagaiek nabarmen baldintzatzen dute merkatu hori, eta horrek eragina dauka sortzen diren ekoizpenen genero eta tipologietan, eta lurralde-testuinguruaren arabera programatzen den eskaintzaren ezaugarrietan.

Euskara arte eszenikoetan


Azterlanaren aurreko edizioetan, aldeak nabarmentzen ziren lurraldez lurralde, euskarazko proposamen eszenikoen ekoizpenean zein programazioan; 2019an, ordea, hiru lurraldeetako ezaugarriek bat egin dutela nabari da.

Ekoizpenari begiratzen badiogu, euskarazko edo ele biko ekoizpenak gutxi gorabehera ekoizpen guztien % 60 direla nabarmentzen da beste ezer baino lehen (% 59,6 zehazkiago, eta 85 ekoizpen termino absolututan). 85 ekoizpen horietatik, 10etik 6 euskaraz soilik egiten dira (% 63,5), eta gainerakoak bertsio bikoitzeko ikuskizunak dira.

Euskararen presentziak arte eszenikoen ekoizpenean lurraldez lurralde izan duen bilakaerak erakusten duenez, Gipuzkoan beti maila handiago batean ibili da gainerako lurraldeetan baino, Araba da aldaketa gehien izan dituen lurraldea, eta Bizkaian goranzko joera txiki bat erregistratu da. Nolanahi ere, edizio honetan bereziki nabarmentzekoa da bat egitearen aldeko dinamika bat nabari dela, ekoizpen-mailak Gipuzkoan % 64, Araban % 61,6 eta Bizkaian % 56,6 izanik.

34. irudia.

Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoen ekoizpenean (1). 2009-2019




(1) Euskaraz egiten diren ekoizpenak eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa dutenak kontabilizatu dira.

Euskarazko antzerki-ekoizpenari soilik begiratzen badiogu, aipatzeko moduko fenomeno bat nabari da: azken hamarkadaren hasieran, bi hizkuntzetako bertsioak ziren nagusi; hamarkadaren amaierarako, berriz, ekoizpen gehienek euskarazko testua baino ez dute (% 63,5 2019an).

Generoaren arabera aldee dagokienez, berriz, euskara da nagusi mota guztietako ekoizpenetan. Haur-antzerkia ia monopolizatzen du (% 95,6), testu-antzerkiaren % 73,3 da, eta kaleko antzerkiaren % 61,3. Nabarmenezkoa da, halaber, bi lirika-ekoizpenak euskarazkoak direla, eta musikalen % 70,4 ere euskarazko ekoizpenak direla.

37. irudia.

Antzerki-ekoizpena euskaraz (1), tipologiaen arabera. Ehunekotan. 2019




(1) Euskaraz egiten diren ekoizpenak eta euskarazko eta gaztelaniazko bertsioa dutenak kontabilizatu dira.

Arte eszenikoen programazioari dagokionez, emanaldien % 48,2 euskaraz egiten dira, horietatik % 75,7 aretoetan eta % 24,3 jaialdietan. Aztertutako aldian izandako gorabeherak ekoizpenean izandakoak bezain nabariak ez badira ere, 2011z geroztik euskarazko programazioak izan duen goranzko joera nabarmendu behar da: 2011n, % 30; 2013an, % 33,4; 2015ean, % 34,9; 2017an, % 37,7.

Euskarak lurralde bakoitzean duen presentziari begiratzen badiogu, ekoizpenean hiruen artean bat egiteko joera bera atzematen da. Gipuzkoan, euskarazko eskaintza % 52,5 da; Araban, gora egin du % 50,5ean kokatzeraino; eta Bizkaian ere gora egin du, % 42,7raino.

38. irudia.

Euskararen presentziaren bilakaera arte eszenikoetako programazioan, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2009-2019



Arte eszenikoetako erakusleen profilak programazioaren ezaugarriak baldintzatzen ditu, eta beraz, euskarazko proposamenen presentzian ere eragiten du. Arte eszenikoetako areto desberdinen artean, nabarmentzekoa da arte ertainetako emanaldien pisua, eta, bereziki, areto txikienetako emanaldien pisua. Areto ertainetan, 10 emanalditik ia 4 euskaraz dira, eta areto txikienetan, berriz, 10etik 6. Jaialdietan duten presentziak ere gora egin du azken urteetan: 2019an 10 emanalditik 4 euskaraz egin ziren (2017an, 10etik 3, eta, 2015ean, 10etik 1,5).

39. irudia.


Arte eszenikoen programatzaileek programatutako euskarazko emanaldiak, tipologiaren arabera. Absolutuak, ehunekoak eta areto bakoitzeko emanaldien batezbestekoa. 2019

Agente tipologia	Emanaldiak euskaraz			Emanaldiak guztira
	Maizt.	%	Ertaina	Maizt.
Areto handiak	52	8,1	13,1	645
Areto ertainak	829	39,1	18,0	2.121
Areto txikiak	427	66,7	11,2	641
Aretoak guztira	1.697	49,8	17,7	3.407
Jaialdiak	544	43,8	12,4	1.243
GUZTIRA	2.241	48,2	16,0	4.650

Ekoizpenetan bezala, haur-antzerkia gainerakoen aurretik dago nabarmen (% 82,4), eta jarraian musikala (% 56,0), kaleko antzerkia (% 52,4) eta testu-antzerkia (% 48,2). Euskarazko antzerki lirikoaren presentzia % 24,4 da.

40. irudia.


Antzerki-programazioa euskaraz, tipologiaren arabera. Ehunekotan. 2019



Azkenik, laburpen gisa, arte eszenikoen ekoizpen eta programazioen datuak lurraldez lurralde aztertzen baditugu, kreaizioetan eskaintza eszenikoan baino presentzia handiagoa duela ohartzen gara.

41. irudia.

Euskararen presentzia arte eszenikoen ekoizpenean eta programazioan, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2019



Euskara ikus-entzunezkoetan

Euskarazko ikus-entzunezkoen ekoizpenean, euskaraz egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa dutenak kontabilizatu dira.

2019an, ikus-entzunezko ekoizpenen % 39,8 euskaraz egin dira, 10 puntu 2017ko datuaren gainetik. Kalkulua EITBko ekoizpena kontabilizatu gabe egiten bada, euskarazko ekoizpenaren ehunekoa % 34,3 da.

Hizkuntza horretan egindako ekoizpena, Gipuzkoan kokatutako enpresen ekoizpenaren ia erdia da (% 48,0); horietatik % 30,6 euskaraz ekoizten dira, eta % 17,4, berriz, euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa duten ekoizpenak dira. Araban, euskarazko ekoizpenak % 27,0 dira, eta ele bitan egiten direnak dira nagusi. Bizkaian, ekoizpenaren % 36,7 dira, % 26,3 EITBko ekoizpena alde batera uzten badugu.


42. irudia.

Euskarazko eta euskarazko zein gaztelaniazko ekoizpenen banaketa Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2019

Lurralde historikoa	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Guztira
Araba	% 2,7	% 24,3	% 27,0
Gipuzkoa	% 30,6	% 17,4	% 48,0
Bizkaia	% 23,6	% 13,1	% 36,7
Guztira	% 25,2	% 14,7	% 39,8

43. irudia.

Euskarak ikus-entzunezko ekoizpenean duen pisu erlatiboaren bilakaera, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2009-2019



(1) Euskaraz egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa dutenak kontabilizatu dira.


(2) EITBko ekoizpena ez da barnean hartu.

Arreta euskarazko ekoizpenen tipologia jartzen bada, bideoklipak dira nagusi, eta zuzeneko emanaldiak (% 49,1), dokumentalak (% 55,7) eta telebista (% 45,3) maila ertain batean kokatzen dira. Euskarazko zinema-ekoizpenen pisu erlatiboa % 33,3 da.

44. irudia.

Ikus-entzunezkoen ekoizpena euskaraz (1), tipologiaren arabera.

Ehunekotan. 2019. (EITB barne)




(1) Euskaraz egiten diren ekoizpenak eta euskarazko zein gaztelaniazko bertsioa dutenak kontabilizatu dira.

Zinema-aretoetan euskarazko filmez gozatzeko aukerari dagokionez, datuek aditzera ematen dute emanaldien % 3,4 hizkuntza horretan direla (4.967 emanaldi 2019an). Horietatik % 51,5 Bizkaian izaten dira, % 33,0 Gipuzkoan, eta % 15,5 Araban. Zinema-aretoen titulartasunaren arabera datuei erreparatuz gero ikusten dugu zinema-areto pribatuak direla euskarazko emanaldi gehien dituztenak (% 70,5).

45. irudia.

Zinema-aretoetan euskaraz erreproduzitutako emanaldiak Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekotan. 2019




Euskara argitalpen-ekoizpenean

2019an, euskarazko argitalpen-ekoizpenak % 47,6ko¹ pisua izan du guztizkoaren aldean. Datuak aztertzen badira agenteen diru-sarreraren profilaren arabera, 2019an, 2017an ez bezala, 500.001 eurotik milioi 1 euro bitarteko profilak (% 62,3) eta argitaletxe txikienak (% 50,8) dira nagusiki euskarazko argitalpenak bultzatu dituztenak. 2017an, aldiz, diru-sarrera handienak dituzten enpresak izan ziren euskaraz gehien argitaratu zutenak.

¹ Sektoreko argitaletxe bat alde batera utzi dugu, muturreko balioak dauzkanez sektoreko datu guztiak desitxuratzen dituelako.


46. irudia.

Euskararen pisu erlatiboa argitalpen-ekoizpenean, argitaletxearen profilaren arabera. Ehunekotan. 2019




Obren jatorrizko hizkuntza aztertzeak ikuspegi berri bat ematen digu argitalpen-ekoizpenaren ezaugarriak aztertzeko. Hala, 2019an nobedade gisa argitaratutako 1.257 tituluetatik, % 24,4 euskarazko originalak dira, eta % 14,9 euskaratutako itzulpenak. Funtsetik berrargitaratutako 1.686 tituluei dagokienez, euskarazko originalak % 20,6 dira, eta itzulpenak % 13,1. Azken buruan, euskaraz argitaratutako hamar titulutik sei, nobedadeak izan edo funtsaren berrargitalpenak izan, jatorriz euskaraz idatzitako obrei dagozkie.

47. irudia.

Argitalpen-ekoizpena tituluaren jatorrizko hizkuntzaren arabera. Ehunekotan. 2019

Modu espezifikoago batean, datuek aukera ematen dute euskarazko ekoizpena zer generotan nagusitzen den nabarmentzeko eta edizio berrien eta berrargitaratuen artean dauden aldeak bereizteko. Ildo horretan, hiztegi eta entziklopedia guztiak euskaraz argitaratzen dira. Gainerako generoetan, haur- eta gazte-literaturan, unibertsitatetik kanpoko testu-liburuetan eta literatura-liburuetan argitaratzen da ale kopuru handiena euskaraz (% 83,4, % 74,1 eta % 45,1, hurrenez hurren).


48. irudia.

Argitalpen-ekoizpena euskaraz generoaren arabera. Ehunekotan. 2019

Euskarazko argitalpenetan aldeak nabari dira, nobedadeak izan edo argitalpen-funtsaren berrargitalpenak izan: argitalpen berriak (% 48,5) berrargitalpenei (% 45,7) gailentzen zaizkie, alde txikiarekin bada ere. Haur- eta gazte-literatura nabarmentzen da, berrargitalpenen % 93 euskaraz izanik, nobedadeen % 83aren aldean, eta unibertsitatetik kanpoko testu-liburuetan ere euskarazko ekoizpena nabari da, berrargitaratutako 10 liburutik 7 eta nobedadeen 10etik ia 8 euskaraz izanik. Azkenik, berrargitalpenik ez duten hiztegi eta entziklopediak, baina nobedade guztiak euskaraz argitaratzen dira.

49. irudia.

Argitalpen-ekoizpena euskaraz argitalpen motaren arabera (nobedadeak edo funtsa) eta aleen tipologiaren arabera. Ehunekotan. 2019



4. Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna

Enpresen mendekotasun publikoa kalkulatzeko da dirulaguntzek haien diru-sarreretan duten pisua egiaztatuz. Hala, EAEko kultura-enpresen ekarpen publikoekiko mendekotasun-maila txikia dela esan dezakegu: haien diru-sarreen % 4,1 soilik datorkie dirulaguntzetatik. Azterketa honen barnean hartzen dira, soil-soilik, agente pribatuak jasotzen dituzten dirulaguntzak, sektore publikoak, zerbitzu-hornitzaile zuzena edo sektore pribatuaren ekoizpen eta zerbitzuen kontratatzailea den heinean, merkatuarentzat suposatzen duena baloratu gabe.

Mendekotasunaren pisua arte eszenikoetan eta ikus-entzunezkoetan handiagoa da beste edozein ekoizpen-sektoretan baino (% 10,3 eta % 6,6, hurrenez hurren). Konpainiak, dirulaguntzen mendean ez ezik, kontratazio-merkatuaren mendean ere badaude, eta hor programatzaile publikoak dira nagusi.

Zuzeneko musikari dagokionez, sustatzaileak kontratazio publikoaren mendean daude neurri handi batean, zuzeneko dirulaguntzen mendean baino neurri handiagoan, eta azken horiek % 4,0 dira, aurreko bi edizioetan baino pixka bat gorago; kontzertu-aretoen mendekotasun-maila handiagoa da, % 6,0, 2017an lortutako mailen antzera.

Argitalpen eta diskoen ekoizpenak mendekotasun-maila txikia dauka: argitaletxeek % 5,1eko mendekotasuna dute, diskoetxeen maila berean.

Saltokiek ia ez dute zuzeneko ekarpen publikorik jasotzen: liburu-dendek eta disko-saltokiek ez dituzte aintzat hartzen, eta arte-galerietan laguntza publiko horiek diru-sarriren % 2,0 dira.

Azkenik, zinema-aretoetan ere mendekotasun-maila oso txikia da, haien diru-sarrerara guztien % 0,2 baino ez direlako ekarpen publikoak.

50. irudia.

Agente pribatuen arlo publikoarekiko mendekotasuna, sektorearen eta agente tipologiaren arabera (1).

Datu absolutuak eta ehunekoak. 2015-2019

Sektorea	Agente tipologia	2015			2017			2019		
		Agente pribatuak	Diru-sarreak guztira	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarreak guztira	Ekarpen publikoak	Agente pribatuak	Diru-sarreak guztira	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milako euro	%	Maizt.	Milako euro	%	Maizt.	Milako euro	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	57	10.593,40	16,1	69	15.989,20	9,7	82	17.438,63	10,3
	Programatzailea	2	-	-	2	-	-	2	-	-
Liburua	Argitaletxea	39	31.145,60	4	34	27.234,10	3	34	27.562,76	5,1
	Liburu-denda	108	55.381,90	0	81	31.122,50	0	82	41.465,85	0,0
Musika	Sustatzaile pribatua	11	26.385,30	2,9	11	47.079,70	3,5	13	42.250,76	4,0
	Kontzertu-aretoa	16	2.713,70	6,2	17	3.016,70	3,9	14	4.589,70	6,0
	Diskoetxea	3	644,6	6,6	6	2.066,10	8,3	5	437,15	5,1
	Disko-saltokiak	20	2.982,40	0	17	2.799,00	2,6	10	2.153,52	0,0
Ikusizko arteak	Arte-galeria	18	2.437,20	2,1	19	4.738,00	0,8	21	3.454,02	2,0
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	89	47.218,90	7,9	69	42.727,70	8,2	73	57.143,98	6,6
	Zinema-aretoak				17	18.605,60	0,8	18	24.542,77	0,2
Guztira		363	179.895,00	4,3	342	195.579,30	4,2	354	221.039,14	4,1

(1) Ez dira jasotzen agente pribaturik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.


Jarduera

Agente publikoek kultura-eskaintzan duten presentziari begiratzeak beste ikuspegi bat ematen digu². Antzerki eta jaialdietako eskaintza eszenikoa publikoa da nagusiki: hamar emanalditik zortzi profil horri dagozkio. Ikusizko arteen alorrean, hamar erakusketatik sei erakusketa gune publikoetan izan dira (% 75,6). Zuzeneko musika-eskaintzan, kontzertuen % 57,5 ekimen publikokoak dira. Ikus-entzunezkoei dagokienez, kontuan hartzekoa da EITBren presentziaren eta pisuaren eraginez publikoak pisu handia duela jardueran, txostenaren beste atal batzuetan aipatu denez.

51. irudia.

Titulartasun publikoko agenteek egindako jardueraren pisu erlatiboa.

Ehunekotan. 2015-2019



² Argitaletxeak, liburu-dendak, disko-saltokiak eta diskoetxeak azterketa honetatik kanpo geratu dira, agente publikorik ez dutelako

5. Berrikuntza eta nazioartekotzea

Inportazioa

2019an egindako kultura-ekoizpenaren eta kultura-programazioaren datuek aditzera ematen digute EAEko artista eta sortzaileen nagusitasuna areagotu dela kasu guztietan, eta beraz, aurreko edizioetako dinamika sendotu dela. Sorkuntza propioaren aldeko apustua areagotuz doa, ediziotik ediziora.

Musika-programazioaren datuei erreparatuz gero, programatutako kontzertuetako hamar artistatik seik euskal jatorria dutela ikus dezakegu. Kanpotarrei dagokienez, estatuko gainerako erkidegoetako herritarrek (% 18,8) atzerritarrei (% 16,6) gailentzen zaizkie, alde txikiarekin bada ere. Disko-ekoizpenean, EAEko artistak % 81,0 dira, eta estatuko gainerako erkidegoetakoak (% 10,3) atzerritarrek baino gehiago dira.


Emanaldi eszenikoen eremuan konpainia kanpotarren kontratazioa mantendu da, pixka bat behera egin badu ere (% 9,0 2017an eta % 7,8 2019an). Estatuko gainerako erkidegoetako taldeen kontratazioak ere pixka bat behera egin du, eta EAEko konpainien kontratazioak, aldiz, gora, % 69,4 izateraino.

Eta, azkenik, ikusizko arteen sektoreak gainerako sektoreen joerari eutsi dio, EAEko artisten pisuak ediziotik ediziora gora egin duelako (% 83,4 2019an), eta atzerriko artistek egindako erakusketen pisuak, berriz, pixka bat behera (% 3,9).

52. irudia.

Nazioartekotzearen pisua kultura-programazioan eta -ekoizpenean.

Ehunekotan. 2017-2019




Presentzia atzerriko merkatuetan

Arte eszenikoetarako atzerriko merkatuek % 28ko pisua dute estatuko gainerakoan, eta % 6,5eko pisua atzerriko merkatuetan. Emanaldietan, oro har, bigarren mailakoa bada ere, antzerki-konpainiek nolabaiteko nitxo bat lortu dute estatuko merkatuan (% 28,8). Dantza-konpainien kasuan, esanguratsua da atzerriko emanaldien pisua (% 16,8).

53. irudia.

Arte eszenikoak ekoizten dituzten konpainiek gauzatutako emanaldiak, emanaldiaren tokiaren arabera. Ehunekotan. 2017-2019




Joerari eutsiz, EAEn kokatutako argitaletxeetatik kanpoko merkatuak argitalpenen % 43 dira: % 29k Estatuko gainerakoa dute jomugan, eta % 14ak atzerria³.

³ Sektoreko argitaletxe bat alde batera utzi dugu, muturreko balioak dauzkanez sektoreko datu guztiak desitxuratzen dituelako.

54. irudia.


Argitaletxeek saldutako ale kopurua (nobedadeak + funtsa), jomugaren arabera.

Ehunekotan. 2017-2019



EAEko kokatutako saltokien sustatzaile pribatuen dinamika aldatu da 2019an: estatuko gainerakoaren –kontzertuen ia erdia (% 49,7)– eta EAEko merkatuaren –% 42,7– artean banatzen dira. Atzerriko merkaturak txikiagoa da, baina aurreko edizioaren pisuari eutsi dio (% 7,1 2017an; % 7,7 2019an).

55. irudia.

Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programatutako lekuaren arabera. Ehunekotan. 2017-2019

Berrikuntza


Berrikuntza-tasak, hau da, ekoizpen berrien proportzioak guztizkoaren aldean, goranzko dinamika bat erakusten du liburuaren eta diskoaren industrietan, haien ekoizpenaren bizitasunaren erakusgarri.

Argitalpen-industriak % 55,1eko berrikuntza-tasa dauka. Disko-industriak behera egin du, % 47,3an kokatzeraino.

Ekoizpen eszenikoan, tasak behera egin du % 22,8an kokatzeraino.

56. irudia.

Berrikuntza-tasa. Ehunekotan. 2017-2019



6. Generoa


2019an, emakumeek % 47,3ko pisua izan dute arteetako eta kultura-industrietako enpleguetan, oro har. Liburuaren eta ikusizko arteen sektoreetan emakumeek presentzia handiagoa izaten jarraitzen dute. Liburuan, hamar langiletik sei emakumeak dira; ikusizko arteetan, kolektiboaren erditik gora dira (% 54,9).

2017aren aldean, musikan duten pisua ehuneko 8 puntutan jaitsi da (2017ko % 52,2tik % 44,4ra). Ikus-entzunezkoen sektorean gora egin du pixka bat (2017an % 41,2 izatetik 2019an % 43,2 izatera), eta gutxi gorabehera enpleguen % 40 inguruko ehunekoein jarraitzen du. Arte eszenikoek osatzen dute sektorerik orekatuena eta egonkorrena, emakumeen ehunekoa % 49,6 izanik.

57. irudia.

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera.


Emakumeen ehunekoa. 2017-2019



Lurraldez lurralde, generoaren araberako azterketan aldagai esanguratsua ez bada ere, Araba emakume langileen % 51,6 izatetik % 45,1 izatera pasatu da, Bizkaiak behera egin du puntu bat, eta Gipuzkoak 2 puntu gora, 2017aren aldean. Titulartasunaren arabera, emakumeek elkarrekin eta fundazioetan gehiago izaten jarraitzen dute (% 59,7).


58. irudia.

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera. Emakumeen ehunekoa. 2017-2019



59. irudia.

Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, agenteen titulartasunaren eta sexuaren arabera. Emakumeen ehunekoa. 2017-2019



Emakumeen enplegua funtzio profesionalaren arabera zehatz-mehatz aztertuz gero ikus dezakegu ia sektore guztietan kudeaketaren eta administrazioaren alorreko postuetan direla nagusi; kontzertu-aretoetan eta diskoetxeetan emakume gutxik dihardute profil horretan, baina gainerako sektoreetan emakumeen presentzia % 50,0 baino handiagoa da. Kontuan hartzekoa da horrelako lanpostuak enplegu guztien % 14,1 direla (471 enplegu).

Aurreko edizioaren ildo beretik, profil teknikoetan eta zuzendari-profiletan emakumeen proportzioa txikiagoa da, % 42,9 eta % 35, hurrenez hurren. Ikusizko arteen sektorean nabarmentzekoa da erakusketa guneetan zuzendaritza-postuen % 65,2 emakumeek okupatzen dituztela, eta liburu-dendetan % 54,8k; gainerako sektoreetan, emakumeen ordezkartza ez da % 50,0era iristen. Profil teknikoen kasuan, emakumeen presentzia % 60tik gorakoa da honako sei sektore hauetan: ikusizko arteen erakusleak (% 63,8), liburu-dendak (% 69,6) eta argitaletxeak (% 63,7), diskoetxeak (% 62,0), musika-programatzaile publikoak (% 61,4) eta sustatzaile pribatuak (% 60,8).

Azkenik, beste kategoria profesionalak guztizkoaren % 54,2 dira. Kasu horretan, diskoetxeak (% 100), arte-galeriak (% 84,2) eta liburu-dendak nabarmentzen dira, azken kasu horretan emakumeak % 81,3 izanik. Emakumeak nagusi dira, halaber, zinema-aretoetan (% 69,0), arte eszenikoen programatzaileetan (% 60,4) eta ikusizko arteen erakusleetan (% 51,6).

60. irudia.


Urteko lanaldi osoko langile baliokideak, kategoria profesionalaren eta agente tipologiaren arabera. Emakumeen ehunekoa. 2019

Sektorea	Agente tipologia	Zuzendariak	Teknikariak	Kudeaketa/ administrazioa	Beste batzuk
Arte eszenikoak	Ekoizlea	44,3	43,3	62,1	43,0
	Programatzailea	47,6	35,6	72,4	60,4
Liburua	Argitaletxea	34,5	63,7	52,3	41,7
	Liburu-denda	54,8	69,6	67,0	81,3
Musika	Programatzaile publikoa	26,3	61,4	66,2	62,4
	Sustatzaile pribatua	18,3	60,8	51,5	40,3
	Kontzertu-aretoa	1,6	0,8	1,9	11,0
	Bandak	20,9	21,8	50,0	0,0
	Diskoetxea	33,5	62,0	0,0	100,0
	Disko-saltokiak	0,0	37,6	49,9	5,3
Ikusizko arteak	Erakuslea	65,2	63,8	56,1	57,6
	Arte-galeria	35,0	26,5	78,6	84,2
Ikus-entzunezkoak	Ekoizlea	25,6	40,4	73,1	45,1
	Zinema-aretoak	32,0	42,5	64,9	69,0
Guztira		35,0	42,9	63,4	54,2

Termino absolutuetan, emakumeen enplegu kopuru handiena teknikari-profiletan nabari da, eta 2019an 766 emakume teknikari izan ziren guztira. Nagusiki ikus-entzunezkoetan, 418 emakume postu teknikoetan lanean, eta musikan, 139 enplegurekin.

61. irudia.

Urteko lanaldi osoko emakumezko langile baliokide guztien banaketa, sektoreen eta lanbide-kategoriaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2019





www.euskadi.eus/kulturabehatokia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA